



UNITATE SUSTATZAILEA	Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko Saila
XEDEA	Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko, energia-efizientzia eta, oro har, irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzak: oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea (2025).
TITULARRA	Tolosako Udala

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko Saileko zinegotzi delegatu Ander Figuerido Zubiriarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udalbatzak, 2017ko apirilaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra (aurrerantzean, DOO) onartu zuela; ondoren, bi aldaketa izan ditu: bata, GAO, 68 zk., 2023-01-26an argitaratua, eta bestea, GAO, 89 zk., 2024-05-09an argitaratua.

BIGARRENA.- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan honako dirulaguntza lerroa sartua dago: Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko, energia-efizientzia eta, oro har, irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileen eta deialdiaren onarpena.. Plan hori Udalbatzak onartu zuen 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023-02-01).

HIRUGARRENA.- Dirulaguntza-deialdirako HIRUREHUN MILA EUROKO (300.000,00 euro) zenbatekoa finkatu da, 2025ko udal aurrekontuaren 0600.780.01.152.20 partidan.

LAUGARRENA.- Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko Saileko Zinegotzi Delegatuak, 2025eko otsailaren 10ean emandako Probidentzian, Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko, energia-efizientzia eta, oro har, irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia egiteko espedienteari hasiera ematea agindu zuen.

BOSGARRENA.- 2025eko apirilaren 1ean Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko Saileko teknikari juridikoak proposamen



teknikoa luzatu du aipatu dirulaguntzaren oinarri arautzaileak eta deialdiaren espedienteari hasiera emateko.

SEIGARRENA.- Horren ostean, dagokien sailek eta azpisailek (Berdintasunak, Euskarak, Kontu-hartzailetzak eta Idazkaritzak) euren txostenak igorri dituzte, honako ondorioekin:

Egileak	Aldekoa / Kontrakoa / Baldintzatua	Oharra
Berdintasuna	ALDEKOA	Genero-irizpideak ez dira oinarri arautzaile horietan sartu behar, artikulua jakin batzuk Eraikuntzaren Kode Teknikoan araututa baitaude (BOE, 74. zk., 2006/03/28koa).
Euskara	ALDEKOA	
Juridikoa	ALDEKOA, BALDINTZAPEAN	- 13. orrian "8. Diruz lagun daitezkeen gastuak" ataleko 1. puntua kendu beharko da, eta ondorengoa jarri: <i>1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.</i> <i>2. Hona hemen diruz lagun daitezkeen gastuak:</i> Ondorengo puntuen zenbakiak ere aldatu beharko dira. - 15. orrian, "9. Eskaerak aurkezteko modua, lekua eta epea" izan beharrean, "9. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua" izan behar da. - 27. orrian "14. Ebazteko eta



		jakinarazteko epea” artikulua ezabatu egin behar da, atal hori deialdian jasota baitago. Ondorengo artikuluen puntuak ere aldatu egin beharko dira.
Kontuhartzailletza	BALDINTZATUTAK O ALDEKOA	Txosten honetan eta txosten juridikoan adierazitako aldaketak egitea faltako litzateke.

ZAZPIGARRENA.- Txosten horietan adierazitako alderdi guztiak kontuan izan ditu Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko Sailak eta dagozkion zuzenketak egin ditu.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotako udalerriko eskumen propioen artean hau dagoela: «9) *Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina. 21) Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea*».

BIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 38/2003, (aurrerantzean, DLO) 9.2 artikuluan ezartzen du: «dirulaguntzak eman aurretik, emakidaren oinarri arautzaileak onartu beharko dira, lege horretan ezarritakoaren arabera».

Horren haritik, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 1873/2017 Epaiaren arabera, lehiaketa-deialdien eta horien oinarrien araubide juridikoa ez da zeharkako aurka egitea ahalbidetzen duen xedapen orokor bat; izan ere, administrazio-egintza bat baino ez da, zehaztu gabeko interesdun-multzo bati zuzendua, legezko eta erregelamenduzko arau zehatzen eta berezien aplikazio zehatz eta bakanekoa, iraupen handia ez duenez ordenamendu juridikoan integratzen ez dena.

Beraz, oinarrien egintza-izaera ez da xedapen orokor bat, administrazio egintza bat baizik.

HIRUGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 55.1 artikuluan, dirulaguntzak emateko prozedurari dagokionez, honako hau adierazten da: *Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka izango da, Legearen 22.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Aurrekoa gorabehera, dirulaguntza arautzen*



duten oinarriek lehentasun-ordena bat ezarri beharretik salbuetsi ahal izango dituzte deialdian esleitutako kreditua behar bestekoa, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren dagoen eskabide kopuruaren arabera.

Ezin daiteke eman deialdian zehaztutako kopurua gainditzen duen dirulaguntzarik.

LAUGARRENA.- Era berean, DLO 17.3 artikuluan adierazten dira dirulaguntzen oinarriek gutxienez jaso beharreko alderdiak zeintzuk diren. Atal horietaz gain, DOOean 19. artikuluan zehazten dira aurreko artikuluan aipatutakoei erantsi beharreko alderdiak. Horiek guztiak, lege-txostenean xedatu bezala, espedientean jasotzen dira.

BOSGARRENA.- DLOeko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan izanda, dirulaguntza lerro hau honako arrazoiengatik jotzen da intereskotzat:

Dirulaguntzaren xedea:	Tolosako hiri-lurzoruan bizitegi-eraikin kolektiboak birgaitzeko, finkatzeko edo energia-efizientzia eta irisgarritasuna hobetzeko zein etxebizitzak egokitzeko bai eta bizitegi eraikintzat hartzetik kanpo geratzen diren eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko dagoeneko eginda dauden obrak diruz laguntzea lehiarik gabeko konkurrentzian, betiere, pertsona fisikoak (jabeak, gozatzailleak edo errentariak edota etxebizitzarekiko beste edozein gozamen-titulu dutenak), legez eraturako jabeen erkidegoak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak (9. lerroako) egiten badituzte. Hori horrela, bederatzi dirulaguntza lerro eskaini nahi dira: 1. Lerroa: Irisgarritasuna hobetzeko instalazioak eta obrak. 2. Lerroa: Inguratzaillearen energia-eraginkortasuna hobetzea (teilatua eta/edo fatxada eraberritzea). 3. Lerroa: Egitura sendotzea. 4. Lerroa: Katalogatutako eraikinen inguratzaillea eta fatxadako elementuak hobetzea. 5. Lerroa: Kanpoko arotzeria aldatzea (Eraikinen Kode Teknikoa kontuan izanda). 6. Lerroa: Mugikortasun mugatua duten pertsonen eta 65 urtetik gorakoen etxebizitzak egokitzea. 7. Lerroa: Aurreko lerroetan sartzen ez diren baina Eraikinen Ikuskaritza Teknikoan egin beharrekotzat adierazita dauden lanak elementu komunetan.
------------------------	---



	8. Lerroa: Aurreko lerroetan sartzen ez diren baina Eraikinen Ikuskaritza Teknikoan egin beharrekotzat adierazita dauden lanak elementu pribatiboetan. Lerroa: Dirulaguntza hauen baldintzetan bizitegi eraikintzat hartzetik kanpo geratzen diren eraikinetan irisgarritasuna hobetzea.
Dirulaguntzarekin espero diren emaitzak:	Eraikin zaharren egoera orokorra hobetzea (estankotasuna, isolamendua, egitura sendotzea eta irisgarritasuna); hartara, udalerriko ondare eraikiaren egoera eta etxebizitzaren bizigarritasun baldintzak hobetzeko. Halaber, eraikinen zein etxebizitzaren efizientzia energetikoa hobetzea eta mugikortasun mugatua duten pertsonen zein 65 urtetik gorakoen etxebizitzak egokitzea.
Dirulaguntzaren beharraren justifikazioa:	Hirigune Historikoko zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleetako etxebizitzek nagusiki egurrezko egiturak dituzte, eta duten konfigurazioaren ondorioz, zaila egiten da irisgarritasuna bermatzen duten elementuak instalatzea. Horren ondorioz, bizitegi horietan bizi diren jabeak beste etxebizitza batzuetara joaten dira, beste konfort eta irisgarritasun estandar batzuk izateko. Horren guztiaren ondorioz, adierazitako eremuetako etxebizitzaren jabeek ez dituzte etxebizitzak mantentzeko eta kontserbatzeko beharrezkoak diren inbertsioak egiten, eta horrexegatik, desio ez den narriadura sortzen da eraikin horietan.

SEIGARRENA.- Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 14.3 artikuluan dirulaguntzen bateragarritasunari edo bateraezintasunari buruzkoa da. Zehazki, honako hau jasotzen du: *«Oro har, eta oinarri arautzaileetan adierazitakoari kalterik egin gabe, deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean, oinarri hauen arabera ematen diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik badatoz, beste dirulaguntza konkurrente batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezartzen duenari kalterik egin gabe».*

ZAZPIGARRENA.- Oro har, oinarri arautzailean eta deialdian, xedatzen denari kalterik



TOLOSAKO
UDALA

2025DO150004

egin gabe, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrekin bat etorrira ematen diren dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe beste dirulaguntza horien araudiak horri buruz agindu dezakeenari. Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa kasuetan honako baldintza hauek bete behar dira:

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua. Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta haien jatorria adierazita daudela

Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketagutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan. Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, eskatuko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

ZORTZIGARRENA.- Oinarri arautzaileek DLOren 17.3 artikuluan ezarritako edukia izan behar du ezinbestez, eta deialdiak berriz DLOren 23.2 artikuluan eta DOOren 19. artikuluan ezarritakoa. Gainera, DLOren 18. eta 20. artikuluetan aurreikusitako publizitate- eta gardentasun-betebeharrak betetzeko, argitaratu beharko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (DDBN - BDNS), zeinak dirulaguntza eta laguntza publiko guztien deialdiak argitaratuko dituen.

BEDERATZIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean 21.1.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokio onartutako aurrekontuaren araberrako kudeaketa ekonomikoa garatzea, bere eskumeneko mugen barruan gastuak xedatzea.

Halaber, eskumen hori 2023/1718 Alkatetza dekretuaren bidez, arloko zinegotzi delegatuari eskuordetzen zaio.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko, energia-efizientzia eta, oro har,



irigarritasuna hobetzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea, testu honen arabera:

TOLOSAKO UDALA											
Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, energia-efizientzia eta, oro har, irigarritasuna hobetzeko.											
1. Dirulaguntzaren xedearen definizioa											
Oinarri hauen xedea da dirulaguntza hauek arautzea: Tolosako hiri-lurzoruan bizitegi-eraikin kolektiboak birgaitzeko, finkatzeko edo energia-efizientzia eta irigarritasuna hobetzeko zein etxebizitzak egokitzeko, bai eta bizitegi-eraikintzat hartetik kanpo geratzen diren eraikinetan irigarritasuna hobetzeko dagoeneko eginda dauden obrak diruz laguntzeko dirulaguntzak, lehiarik gabeko konkurrentzia-araubidean. Dirulaguntzaren xedea da diruz laguntzea Tolosako hiri-lurzoruan dauden bizitegi-eraikinetan birgaitzeko, finkatzeko edo hobetzeko sustapen pribatuko obrak, eta hor sartzen dira energia-efizientzia eta, oro har, eraikinen irigarritasuna hobetzeko obrak. Azken helburua eraikin zaharren egoera orokorra eta irigarritasuna hobetzea da. Batik bat, Hirigune Historikoko zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleetako etxebizitzak eraberritzea sustatu nahi da. Hala, bederatzi dirulaguntza-lerro eskaintzen dira: BIZITEGI-ERAIKIN ETA ETXEBIZITZETAN: - Elementu komunetan egindako obrak: <table><tr><td>1. lerroa</td><td>Irigarritasuna hobetzeko instalazioak eta obrak.</td></tr><tr><td>2. lerroa</td><td>Inguratzailearen energia-eraginkortasuna hobetzea (teilatua eta/edo fatxada eraberritzea).</td></tr><tr><td>3. lerroa</td><td>Egitura sendotzea.</td></tr><tr><td>4. lerroa</td><td>Katalogatutako eraikinen inguratzailea eta fatxadako elementuak hobetzea.</td></tr><tr><td>7. lerroa</td><td>Aurreko lerroetan sartzen ez diren baina Eraikinen Ikuskaritza Teknikoan egin beharrekotzat adierazita dauden lanak elementu komunetan.</td></tr></table> - Elementu pribatiboetan (etxebizitzetan) egindako obrak:		1. lerroa	Irigarritasuna hobetzeko instalazioak eta obrak.	2. lerroa	Inguratzailearen energia-eraginkortasuna hobetzea (teilatua eta/edo fatxada eraberritzea).	3. lerroa	Egitura sendotzea.	4. lerroa	Katalogatutako eraikinen inguratzailea eta fatxadako elementuak hobetzea.	7. lerroa	Aurreko lerroetan sartzen ez diren baina Eraikinen Ikuskaritza Teknikoan egin beharrekotzat adierazita dauden lanak elementu komunetan.
1. lerroa	Irigarritasuna hobetzeko instalazioak eta obrak.										
2. lerroa	Inguratzailearen energia-eraginkortasuna hobetzea (teilatua eta/edo fatxada eraberritzea).										
3. lerroa	Egitura sendotzea.										
4. lerroa	Katalogatutako eraikinen inguratzailea eta fatxadako elementuak hobetzea.										
7. lerroa	Aurreko lerroetan sartzen ez diren baina Eraikinen Ikuskaritza Teknikoan egin beharrekotzat adierazita dauden lanak elementu komunetan.										



5. lerroa	Kanpoko arotzeria aldatzea (Eraikingintzaren Kode Teknikoa kontuan izanda).
6. lerroa	Mugikortasun mugatua duten pertsonen eta 65 urtetik gorakoen etxebizitzak egokitzea.
8. lerroa	Aurreko lerroetan sartzen ez diren, baina Eraikinen Ikuskaritza Teknikoan egin beharrekotzat adierazita dauden lanak elementu pribatiboetan.

BESTELAKO ERAIKINETAN:

9. lerroa	Dirulaguntza hauen baldintzetan bizitegi eraikintzat hartzetik kanpo geratzen diren eraikinetan irisgarritasuna hobetzea.
-----------	---

2. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatzea

Dirulaguntza-lerro hau Tolosako Udalaren 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago. Osoko Bilkurak onartu zuen Plan hori 2022ko abenduaren 15ean (GAO, 21. zk., 2023ko otsailaren 1ekoa).

3. Eraikinen baldintzak

Diruz lagundu daitezkeen obrak egin diren eraikinek baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

a) Tolosako udalerriaren barnean egotea.

b) Eraikingintzaren Kode Teknikoa (2006/03/28 BOE 74. zk.) indarrean sartu aurretiko eraikinak izatea, ez egotea aurri-egoeran eta ez izatea lanak egiteko udal-baimena galarazteko moduko hirigintza-erasanik. Dena den, oinarri hauetako 6. lerroko dirulaguntzei dagokienez, eraikina Eraikingintzaren Kode Teknikoa indarrean sartu aurretikoa izatearen baldintzatik salbuetsita geratuko dira, hain justu, mugikortasun mugatua duten pertsonak bizi diren bizitegi-higiezinak, baldin eta etxebizitza horretan bizitzen hasiz gero badaude egoera horretan, edo 65 urtetik gorako pertsonak bizi diren bizitegi-higiezinak. Mugikortasun mugatuko pertsonatzat joko dira, hain zuzen, ibiltzeko, eskailerak igotzeko edo oztopo arkitektonikoak gainditzeko ezintasun iraunkorra duten pertsonak, protesiak edo aulki gurpilduna erabiltzea beharrezkoa duten ala ez kontuan izan gabe.

c) Eraikinen 2/3 bizitegi-erabilerara bideratuta egotea, eta, gutxienez, hiru etxebizitza



izatea, 9. lerroan aipatzen diren kasuetarako izan ezik.

d) Udal honetan EIT aurkeztua izan beharko dute, eraikinaren antzinatasuna edozein dela ere. Baldintza hori, soilik, 1., 2., 3., 4., 7. eta 8. lerroko dirulaguntzetarako eskatuko da.

e) Bizitegi-eraikinetako elementu pribatiboen kasuan, aurreko baldintzez gain, etxebizitzak ezingo du hutsik egon: hala, pertsona onuradunak ezingo du bera erroldatua ez dagoen eta alokairuan ez duen etxeren bateko obrarik aurkeztu dirulaguntza hauetarako.

4. Diruz laguntzeko moduko obrak

Lerro bakoitzean diruz lagundu daitezkeen obrak honako hauek izango dira:

a. Bizitegi eraikinetako elementu komunetan egindakoak:

1. LERROA: IRISGARRITASUNA HOBETZEKO INSTALAZIOAK ETA OBRAK.

Diruz lagundu ahal izango dira igogailurik gabeko eraikinetan instalatu diren igogailuak, igogailurako ibilbide irisgarriak ez dutenak edo igogailua berritu dutenak, bai eta arrapalak eta plataformak instalatzea ere. Eta, hala badagokio, eskailerak aldatzea ere sartuta egongo da.

2. LERROA: INGURATZAILEAREN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA HOBE-TZEA (TEILATUA ETA/EDO FATXADA ERABERRITZEA).

Teilatuei dagokionez:

Diruz lagunduko da, teilatu guztia aldatzen edo berritzen bada, itxituraren sekzio guztia barne; transmitantzia termikoaren koefizientea bermatzeko beharrezkoa den isolamendua (Eraikintzaren Kode Teknikoan ezarrita dagoena) bermatuz, kasetoien eta argi-zuloen kasuan izan ezik.

Fatxadei dagokionez:

Diruz lagunduko dira fatxadak eraberritzeko dagoeneko egindako obrak, baldin eta, kode teknikoak ezartzen duen transmitantzia termikoaren koefizientea bermatzeko beharrezkoa den isolamendua egiten bada.

Leihoen aldaketa ez da dirulaguntza-lerro honen xede izango.

3. LERROA: EGITURA SENDOTZEA.

Diruz lagunduko dira eraikinaren egiturazko elementuetan egindako konponketak, hala nola hauek: forjatuak, karga-hormak, portikoak edo zimendatzeak, segurtasuna



zaintzeko egindakoak, Hirigintza eta eraikuntza arloko legedian aurreikusita dauden baldintzetan.

Laguntzaren barruan sartuko dira agente xilofagoen, hau da, onddo xilofagoen, larba-zikloko intsektuen, intsektu sozialen (edo termiten) edo bestelako intsektu batzuen ondorio diren patologien kasuak.

Agente xilofagoen aurka egindako esku-hartzeak diruz lagungarriak izango dira, baita egin behar diren azterketak eta beharrezkoak diren laginketak ere.
Ez dira sartuko apeoak eta behin-behineko sendotzeak.

4. LERROA: KATALOGATUTAKO ERAIKINEN INGURATZAILEA ETA FATXADAKO ELEMENTUAK HOBETZEA.

Diruz lagunduko dira eraikin katalogatuetako fatxadak eta estalkiak hobetzeko burututako obrak, baldin eta, haien babes-maila dela-eta, ezin badira bete 2. lerroko dirulaguntza (inguratzailearen energia-eraginkortasuna hobetzea (teilatua eta/edo fatxada eraberritzea)) eskuratzeko baldintzak.

Katalogatutako eraikinen historia-, arte- edo ingurumen-interesa gordetzeko lanak. Horrelako lantzat joko dira baldin eta zaharberritzean edo teknika eta material tradizionaletan espezializatutako eskulana erabili behar bada, eraikinen babes-maila edo arkitektura, eraikuntza eta apaintzeko elementuen balioa direla kausa. Lehenetsunez, lan hauek hartuko dira aintzat atal honetan:

- Zurezko begiratokiak edo balkoiak zaharberritu edo ordezteak.
- Fabrikak eta akaberak zaharberritzea, teknika eta material tradizionalak erabiliz.
- Zurezko jatorrizko bilbadurak zaharberritzea, edo horien ordezkariak elementu arinak jartzea, jatorrizko eraikuntza-sistemeekin bateragarriak, hormigoien erabilera bazter utzita.
- Fatxadako barandak, apaingarriak edo dekorazio-elementuak zaharberritzea.
- Katalogatutako eraikinetako fatxaden gainazala konpontzea eta pintatzea (akabera eta kolorea udal-teknikariekin adostuko dira).
- Fatxaden kanpoaldetik igarotzen diren instalazio komunak berritzea, berrantolatzea eta ezkutatzea.

7. LERROA: AURREKO LERROETAN SARTZEN EZ DIREN, BAINA ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOAN EGIN BEHARREKOTZAT ADIERAZITA DAUDEN LANAK ELEMENTU KOMUNETAN.

Diruz lagunduko dira EIT txostenean konpondu beharrekotzat jasotako bizitegi-eraikinen elementu komunak zaharberritze-lan eta konponketak.

b. Bizitegi-eraikinetako elementu pribatiboetan, hots etxebizitzetan, egindakoak:



5. LERROA: KANPOKO AROTZERIA ALDATZEA ETXEBIZITZETAN (ERAIKINGINTZAREN KODE TEKNIKOA KONTUAN IZANDA).

Kanpoko arotzeria aldatzeko lanak izango dira energia-eraginkortasuna eta isolamendu akustikoa hobetzen dutenak.

6. LERROA: MUGIKORTASUN MUGATUA DUTEN PERTSONEN ETA 65 URTETIK GORAKOEN ETXEBIZITZAK EGOKITZEA.

Mugikortasun mugatua duten pertsonentzat eta 65 urtetik gorakoentzat etxebizitza egokitzeko egindako lanak (komuna, igarotzeko ateak; argi, ur eta gas sentsoreak).

8. LERROA: AURREKO LERROETAN SARTZEN EZ DIREN, BAINA ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOAN EGIN BEHARREKOTZAT ADIERAZITA DAUDEN LANAK ELEMENTU PRIBATIBOETAN.

Diruz lagunduko dira EIT txostenean konpondu beharrekotzat jotako bizitegi-eraikinen elementu pribatiboetako (hots, etxebizitzetako) zaharberritze-lan eta konponketak, betiere, lanak aurreko dirulaguntza-lerroetan sartzen ez badira.

[OHARRA: a) eta b) ataletan xedatutako laguntzak bateragarriak izango dira, betiere justifikatuz, lan bera lerro bakarreko laguntzetara lotuko dela. Horretarako, proiektuan bere aurrekontuan, fakturetan zein ordainagiritan bereziki banatuko da lan bakoitza lerro hauen arabera. Aurkeztutako dokumentuetan behar besteko argitasunik ez balego, bateragarritasun hau ukatzeko aukera izango du dirulaguntza hauek ebatziko dituen teknikari edo batzordeak].

c. Irisgarritasuna hobetzeko bestelako eraikinetan egindakoak:

9. LERROA: DIRULAGUNTZA HAUEN BALDINTZETAN BIZITEGI-ERAIKINTZAT HARTZETIK KANPO GERATZEN DIREN ERAIKINETAN IRISGARritasuna HOBETZEA.

Diruz lagundu ahal izango dira dirulaguntza hauen baldintzetan bizitegi-eraikuntzat hartzetik kanpo geratzen diren eraikinetan irisgarritasuna hobetzeko lanak, oro har, indarrean dagoen irisgarritasun legeak jasotakoak. Adibidez, igogailurik ez duten, igogailurako ibilbidea irisgarria ez duten edo igogailua berritzeko duten eraikinetan instalatutako igogailuak, arrapalak zein plataformak instalatzea, bai eta, ateen, ibilbideen era eskaileren zabalerak egokitzea ere.

5. Pertsona eta entitate onuradunak

Onuradun izan ahalko dira **pertsona fisikoak** (jabeak, gozatzaileak edo errentariak, edo etxebizitzarekiko beste edozein gozamen-titulu dutenak), legez eratutako **jabeen**



erkidegoak eta 9. lerrorako, irabazi-asmorik gabeko elkarteak , betiere betetzen badituzte oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak.	
6. Onuradunek dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak	
Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:	
1) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.	
2) Betearazte-aldian Tolosako Udalarekin zerga-zorrik edo -zehapenik ez izatea, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda.	
3) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean.	
4) Ez izatea administrazio-, lan- edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldian berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere.	
5) Ez egitea emakumeen edo emakume-taldeen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten jarduerak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.	
Hona hemen onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:	
1) Diruz lagundutako jarduerak bat etorri behar du haren xede edo helburu sozialekin.	
2) Elkarteei dagokienez, Elkarteen Erregistroan inskribatuta egon behar dute.	
3) Jabekideen erkidegoei dagokienez, Jabetza Horizontalaren Legean xedatutako modu eta baldintzetan eratuta egon behar dute. Oinarri hauetan xedatutako laguntzen izapideak, besteak beste, jabekideen erkidegoaren ordezkariak egin beharko ditu.	
4) Pertsona fisikoei dagokienez, <u>bizitegi eraikinetako elementu komunetan egindako lanei lotutako dirulaguntza eskaeretan</u> , eraikina jabe bakarrena bada, onuraduna izan daiteke soil-soilik baldin eta pertsona fisikoa bada; eta era horretako lanak diruz lagunduko dira, baldin eta etxebizitzaren gutxienez % 80 beteta baldin badaude eskaera egiten den unean. <u>Bizitegi-eraikinetako elementu pribatiboetan egindako lanei lotutako dirulaguntza-eskaeretan</u> berriz, pertsona horien bizikidetzaren unitatearen 2023 urteko diru-sarrera gordinak ezingo dira, inondik inora, 50.000 eurotik gorakoak	



izan. Urteko diru-sarreraren arabera, diruz lagundu daitekeen gastuaren ehunekoak honako hauek izango dira: <table> <tr> <th>Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak</th><th>Diruz lagundutako gastuaren ehunekoa</th></tr> <tr> <td><= 20.000 €</td><td>% 30</td></tr> <tr> <td><= 25.000 €</td><td>% 25</td></tr> <tr> <td><= 30.000 €</td><td>% 20</td></tr> <tr> <td><= 35.000 €</td><td>% 15</td></tr> <tr> <td><= 40.000 €</td><td>% 10</td></tr> <tr> <td><= 50.000 €</td><td>% 5</td></tr> </table> 2023 urteko diru-sarrerak izango dira kontuan, eta honela kalkulatuko dira: Errenta-aitorpena egin duenaren kalkulua: zerga-oinarri orokorra + aurrezpenaren zerga-oinarria + zergarik gabeko errentak. Errenta-aitorpena egin <u>ez</u> duenaren kalkulua: lan-etekinak + langabezia-prestazioak + pentsioak + langabezia-sorospenak + zergarik gabeko errentak.	Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak	Diruz lagundutako gastuaren ehunekoa	<= 20.000 €	% 30	<= 25.000 €	% 25	<= 30.000 €	% 20	<= 35.000 €	% 15	<= 40.000 €	% 10	<= 50.000 €	% 5	
Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak	Diruz lagundutako gastuaren ehunekoa														
<= 20.000 €	% 30														
<= 25.000 €	% 25														
<= 30.000 €	% 20														
<= 35.000 €	% 15														
<= 40.000 €	% 10														
<= 50.000 €	% 5														
5) Pertsona fisikoek Tolosan erroldatuta daudela azaltzen duen errolda-agiria aurkeztuko dute; pertsona juridikoek berriz, egoitza soziala Tolosan izatearen agiria.															
6) Irabazi-asmorik gabeko elkarteek eratze-eskriturak ere aurkeztuko dituzte.															
7. Dirulaguntzak emateko prozedura															
1) Lehiarik gabeko prozedura erabiliko da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.															
2) Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.															
3) Prozedura horren bidez, aurkeztutako eskaerak hurrenkera kronologikoan ebaluatzen dira, betiere pertsona/entitate eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta kreditu nahikoa badago.															
8. Diruz lagun daitezkeen gastuak															
1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian ezarritako epearen barruan egitea; eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea. 2. Hona hemen diruz lagundu daitezkeen gastuak: - Zalantzarik gabe, diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzutea: hala															



nola lanak gauzatzetik eta ordainsari teknikoetatik eratorritako gastuak. - Obrak obra-lizentzia ematen denetik obra-amaierako ziurtagiria sinatzen den arte, edo obra-jakinazpena eta azken faktura aurkezten diren arteko epearen barruan egitea. - Eskuratze-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea. - Ordainketa justifikazio-epea baino lehen egitea. Salbuespen gisa, ordainketa geroratuak adostu ahal izango dira eskatzailearen eta eraikitzailearen artean, bizitegi-eraikinetako elementu komunetan egindako lanetarako. Horretarako, 10. artikuluan kasu horietarako adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.	
3. Hauek ez dira, inolaz ere, diruz laguntzeko gastuak izango:	
- Banku-kontuetako interes zordunak.	
- Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.	
- Prozedura judizialek eragindako gastuak.	
- Zeharkako zergak, errekuararriak edo konpentsagarriak izan badaitezke.	
- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.	
- Entitate onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio-gastuak, jarduera garatzeko erabiltzen badira (salbu eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 31.6 artikuluko baldintzak betetzen badira).	
- Ez dira diruz laguntzeko moduko jarduketatzat hartuko ezkutuko jarduketak edo hirigintzako arau-haustea eragin dutenak. Ildo horretan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera ezkutuko jarduketak hautemanez gero (hau da, eskatutako hirigintzako administrazio-titulu legitimatzailearik gabe edo horiek alde batera utzita edo urratuta egindako jarduketak), legezkontasuna berrezartzeko dagokion espedienteak hasiko da, eta dirulaguntza ukatuko da.	
- Balio erantsiaren gaineko zerga.	
9. Eskaerak aurkezteko modua eta lekua	
1. Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratuko dira.	
2. Pertsona fisikoek eskaerak eta gainerako dokumentazioa Tolosako Udalaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango dituzte (https://udala.tolosa.eus/es), tramiteen ataritik dagokion dirulaguntza-lerrora sartuta. Bestela, aurrez aurre aurkez ditzakete, herritarrei arreta eskaintzeko bulegora etorrita (UDATE, Plaza Zaharra 6B), bai eta Administrazio Publikoen	



Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere.	
3. Pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan zehaztutako beste batzuek telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskaerak, Tolosako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez.	
10 Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa	
1. Udalak emandako eskaera-orri normalizatua. Udalaren egoitza elektronikoan sartu, eta hortik, dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta eskura daiteke. https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU071120882 Entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du.	
Eskaera-orrian, hauek adierazi behar dira:	
a) Erantzukizunpeko adierazpena, aplikatzekoa den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena.	
b) Erantzukizunpeko adierazpena, beste sail, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, jarduera edo helburu bererako eman zaizkionak jasotzen dituenak.	
2. Ordezkaritza-agiria, hala badagokio.	
3. Obra-amaierako ziurtagiria. Bertan, dirulaguntza eskatzeko egin diren lanen egikaritze- maila zuzena, eta proiektuan edo memorian edo obra-proiektuari lotutako dokumentuan, hartutako neurri guztien eragingarritasuna jaso beharko dira, dagokion Lanbide Elkargoak onartuak, indarrean dagoen araudiak eskatutako kasuetan. Gainera, dirulaguntza eskaria ezingo da aurkeztu, ez bada aurrez zein une berean obra amaierari dagokion dokumentazioa aurkeztu.	
4. Egindako obren argazkiak, koloretan.	
5. Onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduera; baita jarduera horrek sortutako gastuak ere. Justifikaziorako baliagarriak diren agiriak Udalaren egoitza elektronikoan eskura daitezke dagokion dirulaguntza-lerroan sartuta: https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU071120882 Dirulaguntza justifikatzeko, «justifikazioko kontua, gastuak aurkeztuta» modalitatea erabiliko da. Eskaerarekin batera, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:	



a) GAS dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoa eskuragarri). Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua izango du, eta bertan identifikatuta jarri beharko dira hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak. Jatorrizko formatuan aurkeztu behar da dokumentua (.xls), sinadurarik gabe. Gastuaren zenbateko osoak diruz lagundutako obraren kostu osoa islatu beharko du. b) BAL dokumentua (Udalaren Egoitza Elektronikoa eskuragarri). Diruz lagundutako obraren gastuen eta diru-sarreraren zerrenda jasoko du, eta proposatutako ereduaren arabera jaso beharko da Jabeen Erkidegoaren presidenteak edo idazkariak sinatu beharko du edo pertsona onuradunak (edo bere kasuan, bere ordezkariak). GAS dokumentuko gastuen zenbatekoek bat etorri beharko dute BAL dokumentuko gastuen zenbatekoekin. c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza, zenbatekoa eta jatorria adierazita. d) Dirulaguntzaren xede den obrei dagozkien faktura xehatuak (kapitulu, partida eta prezio unitatetan banatuta) eta azken likidazio xehatua. e) Aurreko d) puntuko faktura xehatu horien ordainagiriak. Ordainketaren agindu-emailea, ordainketa-data, onuraduna, eta zenbatekoa jaso beharko ditu. Eta, zehatz-mehatz adierazi beharko dira egindako lanak eta haien deskribapena. f) GAS dokumentuan gastuek duten hurrenkera jarraituz aurkeztu beharko dira faktura eta ordainagiriak.	
6. Dirulaguntza-lerroen arabeko beste hainbat dokumentu: <u>Bizitegi-eraikinetako elementu komunetan egindako lanetarako:</u> - Jabekideen erkidegoaren IFKren kopia. - Egindako lanei begira, jabekideen erkidegoaren erabakia. - Eraikinak jabe bakarra badauka, eraikinaren etxebizitzaren gutxienez % 80ren alokatze-kontratuak, indarrean daudenak. - 8. puntuan aipatzen den ordainketa geroratuak adosten diren salbuespenetarako, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dira: a) Jabekideek aho-batezko erabaki sinatua, adieraziz ordainduko dutela	



ordaindu gabeko fakturen zenbatekoa. b) Ordainketa geroraturako konpromisoa jasotzen duen dokumentua, bi aldeek sinatua, fakturaren jaulkitzaile den enpresarekin ordaintzeke dagoen zorraren kitapena jasotzen duena. <u>Bizitegi-eraikinetako elementu pribatiboetan (hots, etxebizitzetan) egindako lanetarako:</u> - Eskatzailea etxebizitzaren jabea ez bada, jabearen baimena. - Eskatzailea ez badago etxebizitzan erroldatua, alokairu-kontratua. - <u>Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak kalkulatzeko</u>, PFEZ aitorpena egiteko derrigortasunik ez badago: Foru Ogasunaren egiaztagiria, egiaztatzen duena ez dagoela behartuta 2023ko diru-sarrerak egiaztatzeko ekitaldian aitorpena aurkeztera. Urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren inguruko 3/2014 Foru Arauaren 9. artikulua adierazitako zergarik gabeko errentak jasoz gero, horien egiaztagiria. Aurrekoaz gain: a) Besteren kontura diharduten langileen kasuan: PFEZ atxikipenen ziurtagiri ofiziala (10-T dokumentua). b) Pentsioduna izanez gero edo bestelako beka, prestazio edo sorospenik (Gizarte Ongizatekoak barne) jasoz gero, dagokion egiaztagiria.	
Agiriak kontsultatzearen aurka eginez gero: - Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria. - Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria. - Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria. - Bizitegi eraikinetako elementu pribatiboetan (etxebizitzetan) egin beharreko lanetarako: Mugikortasun mugatua dutenak edo 65 urtetik gorako pertsonak bizi diren etxebizitzak egokitze lanak egin behar badira, adinaren (NAN) egiaztagiria eta desgaitasun-ziurtagiria eta/edo mendekotasunaren balorazioa eta/edo ezintasun-ziurtagiria. - <u>Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak kalkulatzeko:</u>	



c) Errenta aitortpena egin dutenek: 2023ko diru-sarrerak aztertzen diren ekitaldirako egindako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena. Urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren inguruko 3/2014 Foru Arauaren 9. artikuluan adierazitako zergarik gabeko errentak jasoz gero, horien egiaztatzea. d) PFEZ aitortpena egiteko derrigortasunik ez badago: PFEZ aitortpena egiteko obligaziorik ez izatearen egiaztatzea, Foru Ogasunarena. Urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren inguruko 3/2014 Foru Arauaren 9. artikuluan adierazitako zergarik gabeko errentak jasoz gero, horien egiaztatzea. Aurrekoaz gain: a) Besteren kontura diharduten langileek: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eginiko lan-bizitzaren agiria, data eguneratua duena. PFEZ atxikipenen ziurtagiri ofiziala (10-T dokumentua). b) Pentsioduna izanez gero edo bestelako beka, prestazio edo sorospenik (Gizarte Ongizatekoak barne) jasoz gero, dagokion egiaztatzea.	
11. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria	
Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela Tolosako Udalaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko.	
Ondorio horietarako, pertsona edo erakunde interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, betiere 5 urte baino gehiago igaro ez badira dagokien prozedura amaitu zenetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.3 artikulua araberak, eta organo instrukzio-egileak eskatu beharko ditu, salbu eta prozeduran jasota badago pertsonaren/erakundearen berariazko aurkakotasuna, edo aplikatzekoa den lege bereziak berariazko adostasuna eskatzen badu.	
Era berean, herritarrei aitortzen zaie edozein Administrazio eginiko dokumentuak ez aurkezteko eskubidea. Tolosako Udalak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez. NISAE euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztiek erabiltzen duten plataforma da, datu elektronikoak administrazio batzuen eta besteen artean partekatze nodo autonomikoa, hain zuzen.	



Pertsona/entitate eskatzaileek berariaz adierazi ahal izango dute ez daudela ados dokumentuak egiaztatzearekin; horrelakoetan, haiek aurkeztu beharko dituzte dokumentuak.	
Ildo horretan, dirulaguntza-lerro honetarako, honako baldintza hauek egiaztatuko dira NISAE bitartekaritzarako edo sarbide publikorako plataforma korporatiboen bidez:	
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.	
- IGAERI BDNSn dirulaguntzak eta laguntzak eskuratzeko inhabilitazioaren agiria.	
- Polizia Zuzendaritza Nagusiari, nortasun datuen kontsulta / egiaztapena.	
- Eusko Jaurlaritzari kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.	
- Gipuzkoako Foru Aldundiari, desgaitasunari buruzko datuen kontsulta/egiaztapena.	
- Gipuzkoako Foru Ogasunari, PFEZaren kontsulta/egiaztapena.	
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari, lan ibilbidearen kontsulta/egiaztapena.	
- Zaharren Institutuari eta Gizarte Zerbitzuei mendekotasun maila eta graduaren kontsulta/egiaztapena.	
- Tolosako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.	
- Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Lanbideri kontsulta/egiaztapena, beka, laguntza edo dirulaguntzei (Gizarte Ongizateko laguntzak barne) buruz.	
Salbuespenez, instrukzio-organoak ezin baditu aurreko paragrafoetan aipatutako agiriak eskuratu, berriz eskatu ahal izango dio pertsona/entitate/irabazi-asmorik gabeko elkarte eskatzaileari aurkez ditzala.	
Besterik ezean, prozedura bideratu eta ebazteko ardura duen organo eskudunak eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia.	
12. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria	
Prozedura hasteko eskaeran ez badira betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, adieraziko zaio, eskatutakoa egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Horretarako, ebazpena emango da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.	
13. Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak	
Honako hauek izango dira dirulaguntza-lerro bakoitzean diruz lagunduko diren kopuruak:	



1., 2., 3., 4. eta 7. lerroak:

Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 20ko laguntza emango da (BEZa kanpo), gehienez ere 20.000 €. Lehentasunez birgaitu beharrekotzat jotako eraikinek edo lehentasunez birgaitu beharreko aldeetan daudenek (Hirigune Historikoko zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleak), urtean, dirulaguntza-deialdi bakoitzean Udalak zehaztu dezakeenaren arabera, diruz laguntzeko moduko gastuaren % 10 gehiago jasoko dute, dirulaguntza gehigarri moduan, BEZik gabe, gehienez ere 10.000 euro arte.

5. lerroa:

Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 30 arteko laguntza emango da (BEZa kanpo) elementu pribatiboetan egindako lanei lotutako dirulaguntza-eskaeretakako pertsona fisikoek betebeharreko baldintzen arabera, eta gehienez ere, 2.000 €. Halaber, diskriminazio positiboa aplikatuko da (gastuaren % 5 gehiago) emakume alargunen alde (Gehienez ere 2.000 €-ren % 5 gehiago).

6. lerroa:

Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 30 arteko laguntza emango da (BEZa kanpo) elementu pribatiboetan egindako lanei lotutako dirulaguntza-eskaeretakako pertsona fisikoek betebeharreko baldintzen arabera, eta gehienez ere 6.000 €. Halaber, diskriminazio positiboa aplikatuko da (gastuaren % 5 gehiago) emakume alargunen alde (Gehienez ere 6.000 €-ren % 5 gehiago).

8. lerroa:

Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 30 arteko laguntza emango da (BEZa kanpo) elementu pribatiboetan egindako lanei lotutako dirulaguntza-eskaeretakako pertsona fisikoek betebeharreko baldintzen arabera, eta gehienez ere 4.000 €. Halaber, diskriminazio positiboa aplikatuko da (gastuaren % 5 gehiago) emakume alargunen alde (Gehienez ere 4.000 €-ren % 5 gehiago).

9. lerroa:

Diruz laguntzeko moduko gastuaren % 20ko laguntza emango da (BEZa kanpo), gehienez ere 20.000 €. Lehentasunez birgaitu beharrekotzat jotako eraikinek edo lehentasunez birgaitu beharreko aldeetan daudenek (Hirigune Historikoko zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleak), urtean, dirulaguntza-deialdi bakoitzean Udalak zehaztu dezakeenaren arabera, diruz laguntzeko moduko gastuaren % 10 gehiago jasoko dute, dirulaguntza gehigarri moduan, BEZik gabe, gehienez ere 10.000 euro arte.

ONURADUNEN BATEK DIRULAGUNTZA-LERRO BAT BAINO GEHIAGO ESKATZEN BADU, JASO BEHARREKO DIRULAGUNTZAREN GEHIENEKO



KOPURUA 60.000 €-KOA IZANGO DA.	
GAINERA, ONURADUN BAT EZINGO DA OBRA-LIZENTZIA BERAREKIN HAINBAT URTETAKO DEIALDIETARA AURKEZTU.	
14. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak	
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzen duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortuz gero, horren berri eman beharko zaio dirulaguntza ematen duen organoari edo entitate laguntzaileari.	
- Gauzatutako obra Udalak emandako baimenean oinarritzea; hau da, bertan jasotakoa zehatz-mehatz betetzea.	
- Diru-sarrerei dagozkien baldintza hauek betetzea: 1. <u>Bizitegi-eraikinetako elementu pribatiboak zaharberritzeko dirulaguntzak emateko</u> , kontuan izango dira diru-sarrerak; hain justu, honako irizpide hauen arabera: <u>a. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztera behartuta dauden pertsonen eta behartuta ez egon arren hala egin dutenei begira</u> , Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aitortpenaren/aitorpenen zerga-oinarriak (orokorra eta aurrezkiarena) zenbatuko dira, gehi lan errendimenduei aplikatutako hobariak, eta hala badagokio, salbuetsitako errentak, hurrengo atalean xedatutakoaren arabera zenbatutakoak. <u>b. Errenta-aitortpena aurkeztera behartuta ez dauden pertsonen begira</u> , berriz, honako diru-sarrera hauek zenbatuko dira: Lan-errendimenduei eta langabezia-sariari dagokienez, arrazoi guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen % 95. Pentsioei eta langabeziagatik diru laguntzei dagokienez, eta baita zergatik salbuetsitako dietei dagokienez ere, arrazoi guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen % 100. c) Era berean, pentsio-konpentsatzaileak kontuan hartuko dira, bai jasotzen duen ezkontide ohiaren diru-sarrera moduan, bai ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiaren diru-sarreren gutxitze moduan; betiere, pentsio konpentsatzailea ordaintzera behartuta dagoen ezkontide ohiak dokumentu bidez egiaztatzen badu modu eragingarrian gauzatu duela ordainketa. d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena aurkeztera behartuta ez dauden pertsonen dagokienez, berriz, lan-errendimenduetatik datozen diru-sarrerak egiaztatze aldera, PFEZ atxikitzeengatik egiaztasun ofizialak baino ez dira kontuan hartuko.	



2. Lortutako diru-sarrerak haztatu egingo dira, 2008ko martxoaren 4an babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruz onartutako 39/2008 Dekretuaren arabera, diru-sarreraren hartzaile- kopuruari eta familia unitateko kide-kopuruari erreparatuta, eta unean-unean indarrean dagoen formularen arabera. Pertsona batek diru-sarreraren ekarpena egiten duela, alegia, hartzailea dela esaten da, baldin eta familiaren guztizko diru-sarreraren % 20ko ekarpena egiten badu, gutxienez. Kontuan hartzeko diru sarrerak, hain zuzen, azken zerga-ekitaldikoak izango dira.	
- Oro har, dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako beste edozein.	
15. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, edozein dela ere haiek ematen dituen administrazioa, erakunde publiko nahiz pribatua, izan Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa	
1. Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere haiek ematen dituen estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko administrazioa edo erakunde publiko nahiz pribatua, eta hargatik eragotzi gabe horren inguruan beste dirulaguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketena.	
2. Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du, inolaz ere, gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez eta beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera ere.	
3. Muga hori ez dela gainditu egiaztatzeko, diruz lagundutako gastu osoa justifikatu beharko da.	
4. Proiektuaren edo jardueraren kostua baino gehiago finantzatzen bada, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, eta ordainketa-gutunak dagokion justifikazioari erantsi beharko dizkio.	
Hala ere, Tolosako Udalak gehiegizko finantzaketa ikusten duenean, gehiegizko zati horren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, Udalak emandako dirulaguntzaren mugaraino.	
16. Dirulaguntza ordaintzea	
Dirulaguntzaren % 100 ordainduko da justifikazioa aurkeztu, eta organo eskudunak onartu ondoren.	
17. Itzulketen araubidea	
Aldi berean beste ekarpen batzuk lortzen badira oinarri hauetan ezarritako	



kasuetatik eta baldintzetatik kanpo, ezarritako betebeharretako edozein betetzen ez bada, edo Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 36. artikuluan ezarritako beste edozein kasu gertatzen bada, emandako zenbatekoa deuseztatu egingo da edo itzuli egin beharko da.	
Horri dagokionez, Tolosako Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VI. kapituluan ezarritakoa aplikatuko da, baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.	
18. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea	
Honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VIII. kapituluan; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean; uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduan; eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoa ere.	
19. Aplikatu beharreko araudia	
Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak honako arau-xedapen hauetan ezarritakora egokituko dira:	
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.	
- Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.	
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua. (Ez dagokio oinarri arautzaile hauetan genero-irizpideak txertatzea).	
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.	
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeakoa.	
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.	
- 2023-2025 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.	

BIGARRENA.- Bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko, energia-efizientzia eta, oro har, irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzen deialdia onartzea, honako edukiarekin:

1. Xedea
Deialdi honen xedea da dirulaguntza honen berri ematea: Tolosako hiri-lurzoruan



bizitegi-eraikin kolektiboak birgaitzeko, finkatzeko edo energia-efizientzia eta irisgarritasuna hobetzeko zein etxebizitzak egokitzeko dagoeneko eginda dauden obrak diruz laguntzeko dirulaguntzak, lehiarik gabeko konkurrentzia-araubidean.

Dirulaguntzaren xedea da Tolosako hiri-lurzoruan dauden bizitegi-eraikinetan birgaitzeko, finkatzeko edo hobetzeko sustapen pribatuko obrak diruz laguntzea, energia-efizientzia eta, oro har, eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obrak barne. Azken helburua eraikin zaharren egoera orokorra eta irisgarritasuna hobetzea da.

Batik bat, Hirigune Historikoko zein Euskal Herria plaza eta inguruko kaleetako etxebizitzak eraberritzea sustatu nahi da.

Hala, bederatzi dirulaguntza-lerro eskaintzen dira:

BIZITEGI-ERAIKIN ETA ETXEBIZITZETAN:

- Elementu komunetan egindako obrak:

1. lerroa	Irisgarritasuna hobetzeko instalazioak eta obrak.
2. lerroa	Inguratzailearen energia-eraginkortasuna hobetzea (teilatua eta/edo fatxada eraberritzea).
3. lerroa	Egitura sendotzea.
4. lerroa	Katalogatutako eraikinen inguratzailea eta fatxadako elementuak hobetzea.
7. lerroa	Aurreko lerroetan sartzen ez diren, baina Eraikinen Ikuskaritza Teknikoan egin beharrekotzat adierazita dauden lanak elementu komunetan.

- Elementu pribatiboetan (etxebizitzetan) egindako obrak:

5. lerroa	Kanpoko arotzeria aldatzea (Eraikingintzaren Kode Teknikoa kontuan izanda).
6. lerroa	Mugikortasun mugatua duten pertsonen eta 65 urtetik gorakoen etxebizitzak egokitzea.
8. lerroa	Aurreko lerroetan sartzen ez diren, baina Eraikinen Ikuskaritza Teknikoan egin beharrekotzat adierazita dauden lanak elementu pribatiboetan.

BESTELAKO ERAIKINETAN:



9. lerroa	Dirulaguntza hauen baldintzetan bizitegi eraikintzat hartzetik kanpo geratzen diren eraikinetan irisgarritasuna hobetzea.
2. Dirulaguntza egozten zaien kreditua eta aurrekontu-partida	
Deialdi honetan emateko dirulaguntzen zenbateko osoa HIRUREHUN MILA (300.000,00) EURO, Tolosako Udalaren Aurrekontu Orokorren partida hauen kargura: 0600.780.01.152.20 (2025).	
3. Pertsona/erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua	
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.	
4. Eskaerak aurkezteko epea	
Eskaerak aurkezteko epea 2025eko irailaren 12tik urriaren 3ra arte izango da (egun horiek barne).	
5. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa	
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.	
6. Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua zehazteko irizpideak	
Deialdi honetan argitaratzen diren oinarrien 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.	
7. Proiektuak egikaritzeko epea	
Dirulaguntzaren xede diren jarduketak honako epea izango dute: 2024ko urriaren 16tik 2025eko irailaren 11ra bitartean bukatuko dira lanak. (Obra-baimena duten lanen kasuan, Obra amaierako ziurtagirian azaltzen den lanen amaiera-data hartuko da bukaera eguntzat. Obra jakinarazpena duten kasuetan berriz, amaiera-datatzat igorritako azken fakturan azaltzen den data hartuko da).	
8. Prozedura antolatu, izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak	
Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Sailak sustatuko du prozeduraren instrukzioa.	
Sail horri dagokio eskaeren balorazioa egitea, txosten teknikoa eginda.	
Dirulaguntza emateko proposamena Balorazio Batzordeari igorriko zaio, hark dagokion txostena egin dezan.	
Honako kide hauek osatuko dute Balorazio Batzorde hori, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, bestelakorik justifikatu ezean: - Kontu-hartzailea edo teknikaria. - Saileko teknikaria. - Saileko zinegotzia. - Idazkaritza Saileko AOT bat.	
Instrukzio-organoak, espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Proposamen hori interesdunei jakinarazi beharko zaie deialdiak ezartzen duen moduan, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.	
Ondoren, Alkatetzara igorriko da, hark, edo hark delegatutakoak behin betiko ebazpena eman dezan.	
9. Ebazteko eta jakinarazteko epea	



Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.
Behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.
10. Ebazpenaren jakinarazpena
Interesdunari ebazpena jakinaraziko zaio.
11. Helegiteen araubidea
Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:
Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.
Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.
Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko edo berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtsio hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

HIRUGARRENA.- Erabakia dirulaguntzen datu-base nazionalean (BDSNen), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, Tolosako Udalaren web orrian eta Gardentasun Atarian argitaratzea.

Ebazpen hauek finkoak dira eta amaiera ematen diote administrazio-bideari. Erabakien kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakien aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabakiak argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki hauek argitaratu eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsioari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.



TOLOSAKO
UDALA

2025DO150004

**Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua,
Tolosan, sinaduran agertzen den datan.**

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL-IDAZKARIA

Ander Figuerido Zubiria

Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025DO150004-Ebazpena/Ebazpena (TOLOSAKO UDALA)